


# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

290 - 2021eko apirila

EUSKAL MUSIKAREN  
ONDAREA,  
BALERDIREN BABESEAN



## POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteryen bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) / 638 652 339.

M. Angeles  
Urrizalki

iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...

Diario Vasco eta Diario  
de Navarrako  
Korrespontsala

948513056  
699179437



Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etxez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
948513151



948 51 30 88

[maiteharategia@hotmail.com](mailto:maiteharategia@hotmail.com)

BERTAKO  
HARAGIA

Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldatutako  
platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiztua ere  
eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7  
31890 BETELU

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:  
Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:  
Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzia eta esanenen erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

· ERREDAKZIOA:  
Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:  
Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Belen Balenciaga, Maider Agirrebarrena, Julen Saralegi, Vero Satrustegi, Mikel Irujo, Igor Mitxaus, Aralar Musika Eskola, Cerderna Garalur eta Unsplash.

· PUBLIZITATEA:  
Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

· MAKETAZIOA:  
Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzejua eta bazkideek babestutako aldizkaria.

04 ▶ **KUXKUXEAN** Apirileko zorion agurrak.

08 ▶ **ELKARRIZKETA**



Belen Balenciaga.

12 ▶ **IZAN GAZTE** Hilekoa: zer da?

14 ▶ **BATZARRE** Amazabal Institutuko gurasoen agerraldia.

18 ▶ **ERREPORTAJEA**



Euskal musikaren ondarea zaintzen.

21 ▶ **KULTURA** Azoka Ibiltaria.

24 ▶ **ERREPORTAJETXOA** Emakumearen Nazioarteko Eguna.

27 ▶ **KIROLA** Araxes Herri Kirol Kluba.

28 ▶ **PLAZATIK PLAZARA** Albiasuko Kontzejua.

31 ▶ **AGENDA**





**Conchi Liciaga Zatarain**  
Apirilaren 30ean, 74 urte.  
*Zorionak Amona!!*  
*Alain, Jone, Jakes eta Arturo.*



**Maren Michaus Landa**  
Apirilaren 12an, 3 urte.  
*Zorionak etxeko printzesari!!!*  
*Egun zorionsua pasa!*  
*Muxu handi bat familia guztiaren partez.*



**Xabat eta Hodei Arregi Estanga**  
Apirilaren 4an, 4 urte Xabatek eta  
24an, 7 urte Hodeiek.  
*Mila zorion zuen urtebetetze egunean bikote! Muxu mordo bat famili guztiaren partez.*



**Joar eta Ekia Agirrezabala Valencia**  
Apirilaren 12an, 7 urte.  
*Jarraitu zuhaitzetatik gorantz ilargia ukitu arte.*  
*Zorionak bikote!!*  
*Muxuak etxekoen partez!!*

**MAREN ELORDI ILARREGI**  
Apirilaren 12an, 3 urte.  
*Zorionak etxeko printzesari!!!*  
*Egun zorionsua pasa!*  
*Muxu handi bat familia guztiaren partez.*



**Elaia Iriarte Olano**  
Apirilaren 20an, 4 urte.  
*ZORIONAK ARTISTA!!! Segi ezazu irribarre eder horrekin.*  
*Muxu potolo bat etxekoen partez.*



**Egoitz Oreja Altuna**  
Apirilaren 5ean, 12 urte.  
*Urte askotako Egoitz!*  
*Segi holaxe, pozik eta bizkor hazten.*  
*Muxu haundi bat familia guztiaren partez!! Ongi pasa!!*

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

**Industrialdea, 11**  
**31870 Lekunberri - Nafarroa**  
**Tel.- 948507319 Fax.- 948604792**  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



## BIGARREN URTEZ BERTAN BEHERA

Lekunberriko Legoa bertan behera gelditu da bigarren urtez. Iaz Koronabirusaren lehen olatuak harapatu zuen eta aurten ere ezinezkoa izanen da kirol proba hori egitea. XXXI. edizioa izan zen azkena, 2019an egin zena.



## EUSKAL UDALEKUAK

Badirudi pandemiaren ondorioz, uda honetan ere hainbat neurri bete beharko ditugula, baina hala ere, gozatzeko hamaika aukera izanen ditugu. Nafarroako hainbat Euskara Zerbitzuz osatzen duten [era.eus](http://era.eus) atariak aurtengo udan eskainiko diren euskal udalekuen zerrenda kaleratu du: [labur.eus/c8WHA](http://labur.eus/c8WHA)



## DENBORALDI BERRIA BEIGORRIN

Apirilaren 1ean irekiko da berriro Beigorri Abentura Parkea eta azarora arte egonen da irekita. Udaberriaren etorrerarekin batera emanen zaio hasiera aurtengo denboraldiari. Informazio gehiago [www.izadiaventura.com](http://www.izadiaventura.com) atarian.

## ► Julen Saralegi (Betelu)



*Gogoz kontra etxean  
gelditu beharrak  
sorrarazi dizkigu  
buruhauste txarrak,  
txukun ez egon arren  
kaleen baztarrak  
aurrera jarraitu du  
gure herri zaharrak.*

*Pasatako negua  
bidaliz atzera  
udaberria heldu da  
penak bidaltzera,  
barruan daukaguna  
behar dugu atera  
berriz festan biltzean  
izangou aukera.*



Datorren hilean bertsoan jarriko dugu.... Mattie Garaikoetxea!!!

## BEHERAGUNEAK

Iruñeko Gazteluko plazan, kalkulaten dut, 1980ko hamarraldiaren inguruan, egin zituztela lehenengo beheraguneak espaloietan, lehentxeago edo geroxeago izan daiteke, baina, betiere, garai hartantxe. Ordura arte, uste dut ez zegoela deus ere egina, alegia, ez zegoela ezer ere egokituta, gurpil aulkian zebiltzan pertsonak, hobeki eta errazago mugitzeko.

Halako batean, nonbait, udaleko norbaiti, bururatu zitzaion komeni zela zebra-bideetan beheraguneak egitea, pertsona batzuei bereziki, beren ibilbideak erraztu eta samurtzeko. Gogoratzen dut, une hura arte, han ibili behar izaten nuela bilatzen, ea non ote zegoen garajeren bat edota espaloi hautsi eta deformaturen bat, handik barna igo edo jaitsi ahal izateko aulki gurpildunean, baina leku guztietan, ordea, ez zen batere erraz gertatzen halakorik aurkitzea.

Hala eta guztiz ere, egindako lehendabiziko beheragune haiek oso-oso gaizki gelditu ziren, ez dakit alkatereen interes faltarengatik ala eskarmentu ezarengatik izanen ote zen, baina kontua da, burututako hiriko lehenengo beheragune haiek, arrunt piko eta motzak geratu zirela, eta, horren ondorioz, oso zaila zen haietan barrena igotzea eta jaistea, hainbestera zen, non jaisterakoan, arrisku handia baitzegoen muturrez aurrera joateko lurreraino, baina, bueno, halarik ere, eta, batez ere egitari zor, esan beharra dago, hobe zela horrela egotea lehen zeuden moduan baino. Handik urte batzuetara, hasiko zen Iruñeko Udala, azkenik, espaloietako beheraguneak ongi egiten, hau da, parametro guztiak ongi beteta; bazen garaia!

Baina nire harridurarako, hara zer entzun edo irakurri nion pertsona heldu bati, handik gutxira, lan haien gainean, alegia: <Arraioa!, azken batean, gurpil aulkian dabilzan pertsonak lau katu triste baino ez izanik, marka da gero, udalak, obra honetan, denon dirutik, barra-barra honela alferrik gastatu behar izatea! Penagarria! Ez ote dute beste lehentasun hobeagorik aurkitu diru hori erabiltzeko? Gaizki goaz, oso gaizki ere, alajainkoa!>.

Orain, berrogei urteren buruan, ez dut uste pertsona hark esanen lukeenik gauza bera, are gehiago, baliteke, hurrengo urteetan, berak ere etekina atera izana beheragune haiei, eta baita, geroago, eginen ziren gainerako guztiei ere, bastoia, makuluak edota aulki gurpilduna erabili behar izan dituelako. Badaezpada ere, hobe izanen da ez esatea "ur honetatik ez dut edanen", eta, "apez hori ez da nire aita".

Xanti Begiristain Madotz. Auritz.

## PELLO MARI OTAÑO IKASGELETARA!

Duela hogeitaz urte, milurtekoa estreinatu berritan, erabaki nuen Galiziako lurretan kokatzea, ezer gutxi nekien nik orduan epe laburrera zinema-ekoizle xume bihurtzeko aukera izango nuela. Gauza bera gertatu zen hogeitaz urte lehenago, pertsona bati ni antzezle lanetan jarritzea bururatu zitzaionean. Eta Castelaok esango lukeen antzera "cousas da vida", inork ez zukeen imajinatuko Segoviako ihesaldi hartatik berrogei urte igaro ondoren "Ombuaren itzala" izeneko filmaren ekoizpen lanetan buru-belarri lanean ibiliko nintzela gaur.

Aitortu beharra daukat nire bilakaera profesional honen "errudun" bat badela. Asko miresten eta maite dudan gizona. Poeta handi bat, Emilio Araújo, hain gaizki tratatutako Galiziako landa eremu horrek duen kronista bizi baliotsuena. Berak ireki zituen nire begi eta belarriak San Mamede edo Queixako herririka sakabanatu ezberdinek gordetzen duten oinaze bizi eta isiltasun sakonari. Zinemazale amorratua dena, egun batean, Lalindik, Ribeira Sacra nire etxera heldu zen, haren belarrietara iritsi baitzen "Tasio" Lokiz mendilerrotik Nogueira de Ramuñeko herririka batera iritsi zeneren albistea. Manda carallo!

Halako filmak behar zirela, halako filmak berpiztu behar zirela esanez jo zuen nire atea. Landa eremu atsegina eta bertako jende xeheaz hitz egiten zutenak.

LAGUNDU MAILOPE  
LAGUNDU MAILOPE  
LAGUNDU MAILOPE

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**

Aralar kalea, 41  
Lekunberri

**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

"Témos que facer cine xuntos, contar historias deiqui, falar da memoria das pedras, e da memoria das augas".

Horren ondorioz, "Terra do Millo" (Artoaren Lurralde) iritsi zen 2009. urtean. San Mamedeko errepresioari buruzko lan dokumental historikoa, mendilerroko herrixketan zehar "Felos"-en (inauterietako pertsonaiak) urteroko ibilbideari jarraituz, "chocas"-en (joaleak) kolpe soinuek girotua eta Emilio Araújoaren olerkiez goxatua. Tipula bailiran, pixkanaka azalak kendu eta bertako txokoen izenak eta isildutako lekuak banan-banan azaleratuz, ahazten gaituen memoriaren berpizkundera.

Gaur, 2021ean, pandemiak sortu dizkigun ziurgabetasunetan murgilduta, berriro natorkizue, Araújok buruan sartu zizkidan zomorroak elikatuz eta euskal idazle eta poeta handi den Koldo Izagirrerren hitzak bide lagun izanik. Berari zor baitizkiot gidoi bikaina eta lankidetzaren horren emaitza den Pello Mari Otañori buruzko "Ombuaren Itzala" filmaren proiektua.

Zinema ona egiten jarraitu nahi dut, zinema ona eta ezberdina egin nahi dugu, nik bezala pentsatzen duten beste asko baitaude. Gure jendeaz, gure kultura sortzaileez hitz egiten duten filmak egingo ditugu, Pello Mari Otañoren kasuan bezala. Eta berreskuratu, berpiztu, euskal belaunaldi berrientzat, gazteenentzat batez ere. Filma Euskal Herriko herri eta txoko guztietara eraman nahi dugu, Euskal Herriko txoko eta herri guztietatik denetara egin dezan bidaia Otañok, Adourretik Ebroa, Mauletik, Erronkaritik, Bianatik, Malato Zuhaitzera, Errioxara, Meatzaldea edo Enkarterrietara.

Mugakideek, euskal kulturaren egarri aseeginena daukaten horiek ere, Otañoren jaioterriko Zizurkildar batek bezala, "Ombuaren Itzala"-ren filmeko irudiekin goza dezan.

Auzolan-kide bakar batek ere ez dezala probintzietako edo eskualdetako hiriburuera gerturatu beharrik, euskal zinemaz gozatu ahal izateko. Behin izan ziren zinema-aretoak desagertu diren tokietan egongo gara. Zinema ekoizteko modu berriak jorratzen ari gara, etorkizunean horien zabalkundera eta merkaturatzea erraztuko duten beste modu batzuk bilatzen eta iker-

tzen. Horixe proposatzen diogu euskal gizarteari Eguzki Art Zinema ekoiztetxe xumetik, Arakil ibaia sehaska duen Errotz herri urrunetik.

Bide berri bat sortzen ari gara, inoiz jarraitu ez den bidea. Aitzindariak izango gara, historia idatziko dugu. Izan ere, ehun urtetik gorako zinemaren historian, inoiz ez da finantzatu elkarrekin lan egiten duten hogeita hamar mila ekoizle baino gehiago dituen filma. Gure buruarentzako, guk sortuz, komunitatean ekoiztuz, eta gero mundu osoari eskainiz.

Filmarekin batera, Pamiela argitaletxearen eskutik, Auzolaneko abentura zoragarri hau biltzen duen liburua ere argitaratuko dugu. Bitakora koaderno moduko bat, pasadizoak jasotzeko, filmaketa argazkiak... filma bera lapitza formatuan edo pendrivean eskuratzeko ere izango da aukera. Azkenik, oroitzapen polit bat, non gure kolaboratzaile guztientzat ondo merezitako esker onak ere agertuko diren. Gure opari partikularra izango da, euskal zinema posible egiten duzenontzat.

Patxi Bisquert (Eguzki Art Zinema).

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7 - baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

Olagain. Mugiro.

948 504 128

[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)

# “Asko gustatzen zait hemengo jendeari buruzko istorioak idaztea”

*Belen Balenciaga lekunberriarrak Txantreako Sagrario Resano literatur lehiaketa irabazi du, ‘Abuelo’ narrazioarekin. Herriko eta inguruko pasadizoak kontatzea gustatzen zaio, eta gerraostean girotutako istorioak idazten ditu. Amarengandik datorkio kontaketarako zaletasuna.*

## Nor da Belen Balenciaga?

Lekunberrikoa naiz; nire gurasoak hemengoak dira, betidanik. 25 urte daramatzat administrari lanetan, familiako enpresa batean, baina artearen historian lizentziaduna naiz. Aisialdian lagunekin egotea, zinemara joatea eta irakurtzea dut gustuko. Momentuan nahi dudana egitea gustatzen zait, eta gauza berriak egitea, hala nola eskulanak, irakurketa klubera joatea...

## Organoa ere jotzen duzu.

Bai, eta parrokiako abesbatzan nago, aspalditik. Txikitik hasi nintzen musikan: solfeoa ikasi nuen, txistua, pianoa, organoa... Egun, bost lagunek

*“Lagunei beti bidaltzen diet idatzitakoa; beti animatu naute, baita familiak ere”*

jotzen dugu organoa parrokian, eta txandakatu egiten gara. Baina orain, COVIDa dela eta, ezin dugu entseatu. Urtero bi kontzertu ematen ditugu Lekunberrin: Aste Santuan eta Gabonetan. Iaz aurrenekoa prestatzen ari ginen, baina bertan behera utzi behar izan genuen, eta ezin izan dugu segitu, lokal txiki batean entseatzeko baitugu. Hori da nire beste zaletasunetako bat, noski: musika.

## Musikaz gain, idatzi ere egiten duzu.

Bueno, zerbait bai. Askok esaten dute txikitatik idazten dutela; bada, nik ez. Orain dela sei edo zazpi urte arte ez nuen sekula idatzi. Mikrokontakizunak idazten hasi nintzen, ez dakit nola. Hasi, eta ikusi nuen lehiaketa asko zeudela, eta batzuetan parte hartzea animatu nintzen. Gero, kontakizun laburrak idazten hasi nintzen, pixkanaka-pixkanaka, eta nire laguneri beti bidaltzen nien idatzitakoa: beti animatu naute, baita nire familiak ere. Egun batean, Txantreako Sagrario Resano literatur lehiaketaren berri izan nuen, eta nire narrazioetako bat bidali nuen, idatzi nuen lehena edo bigarrena, eta finalista izan nintzen. Egia esan, denera bost kontakizun bidali ditut lehiaketa horretara: hirutan izan naiz finalista, eta azken honetan irabazi egin dut. Oso pozik nago, oso pozatsun pertsonal handia da.

## Zergatik da hain berezia Sagrario Resano lehiaketa?

Lehiaketa hau Txantrea auzoko emakume bati eskainita dago: Sagrario

Belen Balenciaga orain dela sei urte inguru hasi zen narrazioak idazten. Arg: Labrit.





Resano 2004ko ekainaren 22an hil zen Txantreako emakume bat zen. Emakume geldiezina zen, borrokalaria eta bere pentsamenduekin koherentea. San Jose abesbatzan parte hartu zuen, hasieratik aritu zen bizilagunen elkarteetan, auzoko emakumeen taldeetan, baita koordinadora feministarekin ere. Talde internazionalistaren sortzailea izan zen, 1979an, eta beranduago Andere Txokoan. Haren konpromiso politikoak hauteskunde zerrenda batean parte hartzea eraman zuen. Kantatzea eta idaztea gustatzen zitzaion: kontakizunak, olerkiak... idazten zituen.

Iruditzen zait gauza askotan natorrela bat harekin. Hark ere asmo berezirik gabe idatzi zuen, besterik gabe, gustuko zuelako. Eleberririk idazten ari zen hil zenean. Haren lehen eleberria zen, eta nekazaritza munduko emakume baten istorioa kontatzen zuen, gerra zibilean kokatua. Nik ere ez dut asmo berezirik idazten dudanean: gustuko dudalako idazten dut. Nire lagunak eta senideek liburu bat idazteko esaten didate, baina, oraingoz, ez; batek daki! Oso konplikatu da, eta nahikoa dut nire kontakizunekin.

### Noiz izaten da deialdia?

Martxoan izaten da, eta maiatzean ekitaldi txiki bat egiten dute, Txantreako liburutegian; idazleak, abeslariak... gonbidatzen dituzte. Kontakizun irabazleak aurkezten dituzte: bata euskaraz, eta bestea, berriaz, gaztelaniaz. Irabazleek euren ibilbideari eta lanari buruz hitz egiten dute, eta liburu bat argitaratzen dute finalisten eta irabazleen lanekin.

### Beraz, behin baino gehiagotan argitaratu dute zure lanen bat.

Bai, hiru aldiz! Zirrarragarria da niretzat.



Solfeoa ikasi zuen txikitan Balenciagak, eta organo jotzailea da egun Lekunberriko parrokian. Arg: Juan Antonio Garaikoitxea.

### Zure narrazio irabazlearen izenburua *Abuelo* da. Zer kontatzen duzu?

Asko gustatzen zait hemengo jendeari buruzko istorioak idaztea, herriaren ingurukoak. Nire familian edo herrian gertatutako pasadizoak sartzen ditut istorioan, ibarreko gertaerak... Kontu errealeak sartzea gustatzen zait, pasadizo moduan, baina kontakizuna beti da asmatua. *Abuelo*-k haur baten eta hiltzen ari den aitonaaren arteko harremana kontatzen du. *Los Payasos de la Tele* pailazoaren abesti batekin hasten da, asteke egunei buruzko kanta batekin. Honela dio: "*Lunes antes de almorzar, una niña fue a jugar, pero no pudo jugar porque tenía que planchar*"; "[...] *porque tenía que limpiar*"; "[...] *porque tenía que lavar*" (Itzulpena: "*Astelehenean, bazkaldu baino lehen, neska bat jolastera joan zen, baina ezin izan zen jolastu, lisatu egin behar zuelako*"; "[...] *garbitu egin behar zuelako*"; "[...] *harrikoa egin behar zuelako*"). Istorioko mutikoa abesti hori entzuten ari da telebistan, eta haren amak ohean dagoen aitona ikusteko esaten dio. Orduan,



Belen Balenciagak oso gustuko du Lekunberriko alde zaharra. Arg: Labrit.

**"Ez dut asmo berezirik idazten dudanean: gustuko dudalako idazten dut"**

**“Amaiera ireki bat  
uzten dut, irakurleak  
gogoeta egin dezan”**

aitonarekin istorioak gogoratzen hasten da: jolasean amonaren kuxtatik arropak atera eta mozzoratzen zireneko egunak, eta beste hainbat pasadizo.

Genero estereotipoak lantzen ditut pixka bat. Hasiera amaierarekin lotzea gustatzen zait; bukaeran, mutikoak aitonari galdetzen dio zergatik neskatoek lan egin behar duten pailazoan abestietan eta ezin diren jolastu, eta zergatik ez zekien inork amonaren soinekoak jantzita mozzoratzen zirela, zergatik zuten sekretu bat. Horrez gain, nire familiako

pasadizoak ere sartu ditut: nire osabak nire amonaren oilorik onena hil zuela harrikada batez, adibidez, edo gerraostean ondoren haur batzuek granada bat aurkitu zutela ibaier-tzean, eta eskuetan lehertu zitzaizela, eta ume bat hil egin zela.

**Helburua irakurleari gogoeta eginaraztea da?**

Amaierak pentsarazten dizu zernolako haurtzarora izan genuen, eta zer estereotipo zeuden garai hartan. Amaiera ireki bat uzten dut, irakurleak gogoeta egin dezan.

**Fikzioa, baina benetako xehetasunekin eta zuk dakizkizun pasadizoekin.**

Hori da. Asko gustatzen zaizkit, eta amak horrelako asko kontatzen ditu. Oso memoria ona du, eta haurtzaroko pasadizo asko kontatzen ditu.

**Beraz, kontatzearena familiatik datorkizu.**

Bai. Nire ama Barrenea etxean hazi zen, eta beti kontatzen ditu auzoari eta familiei buruzko istorioak. Idatzi nuen lehen kontakizuna Mitxausean bizi zen familia baten ingurukoa zen: seme-alabekin Ameriketara emigratu behar izan zuten.

**Zer beste gairi buruz idatzi duzu?**

Ameriketako Estatu Batuetara emigratu behar izan zuten artzainei buruz idatzi dut; kontakizun hori finalista izan zen Sagrario Resano lehiaketan. Narrazioak kontatzen zuten istorio bakoitza doinu batekin



Lekunberriko parrokiako koroa; bigarren ilaran dago Belen, eskuinean. Arg.: Juan Antonio Garaikoetxea.

**IORTIA** LI INCA ESTETIKA HORTZ ESTETIKA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*

24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
www.tanatoriosirache.es

hasten zen. Protagonista bere bitzta gogoratzen ari da, pianoan eserita; orduan, haurtzaroko lagun batek emigratu behar izan zuela gogoratzen du, artzaintzan aritzeko joan behar izan zuela. Melodia hori paragrafo bakoitzaren hasieran dago, eta irakurlea animatzen dut, irakurtzearekin batera, melodia abestera, melankolia horretan sar dadin.

### **Azken honetan zein aurrekoan, musikak gidatzen zaitu.**

Bai, egia da.

### **Orain zerbait idazten ari zara?**

Inauteriei buruzko kontakizun bat idatzi dut. Aurtengo lehiaketara bidaltzeko asmoa nuen, baina ez dakit eginnen dudan. Amak beti esaten zuen bere familian, neba-arrebek beste batzuei iseka egiten zietenean, esaera bat erabiltzen zutela, eta atentzio handia ematen zidan. Asmatu egingo zutela uste nuen, baina Interneten informazioa bilatzen hasi, eta XX. mendearan hasieran inauterietan abesten zuten esaera moduko bat zela irakurri nuen. Harritu egin ninduen, eta, aitzakia horrekin, mende hasierako inauterietara eramaten duen kontakizun bat idatzi dut, gaur egungo inauterietaraino.

### **Beraz, idazten hasi aurretik dokumentatu egiten zara.**

Bai, baina beti Lekunberriko, Larraungo eta, batez ere, gerraosteko gaiak izaten dira.

### **Bistakoa da historia gustatzen zaizula eta hori ikasi duzula...**

Ba, bai. Nire amak kontaktzen dituen istorio horiek jende xumearenak dira, bizilagunenak, lehen nola bizi ziren kontaktzen duten istorioak. Amaren ama Ezkurrakoa zen, eta amak uda asko ematen zituen han, 4 urte bete zituen egun berean, anaietako bat jaio baitzen. Orduan, ama jeloskor jarri zen, eta medikuak esan zion familiari beste norabait eramateko. Hala, Ezkurrara eramane zuten aitona-amonekin, eta, ordutik, uda guztiak eman zituen Ezkurran. Hango bizipen eta ohiturei buruzko istorio asko kontaktzen ditu. Behin aitona asto jaioberri batekin oinez etorri zen Ezkurratik



Lekunberrira, menditik, eta oparitu egin zion. Istorio hori kontakizunen batean ere kontatu nahi dut.

### **Idazten jarraituko duzu, eta izango dituzu aukera gehiago.**

Gainera, Lekunberrin Txantrean egiten denari gogorarazten didan lehiaketa bat egiten da: Angel Urrutia Iturbe lehiaketa. 20 urte egin ditu lehiaketa horrek poesia sustatzen. Parte hartzeko zortea izan dugu, korukoak gonbidatzen gaituztelako. Hemen figura garrantzitsu hori dugu, eta lehiaketa horrekin omenaldi bat egiten zaio hari.

### **Zer behar da idazteko?**

Kontatzeko zerbait izatea, eta gogo handia, besterik ez. Hasieran kostatzen da, baina gero bat-batean sortzen. Dena ikasten da. Ni autodidakta naiz, baina idazketa tailerrak badaude. Gogoia baduzu, aurrera!

Barrenea da Balenciagaren amaren jaiotetxea. Txikitik ordu asko pasatzen zituzten inguruan jolasean. Arg: Labrit.

# Hilekoa: zer da?

Veronica Satrustegi

*Komunera joan naiz, goizero-goizero bezalaxe, ohetik jaiki eta pixa egiteko asmoz. Ilea korapiloz josita daukat, atzo mototsa egiteko erabilitako goma zintzilik, eta begietako makarrak kendu ezinik nabil. Aharrausi bat. Komuneko tapa altxa dut, poliki, baina komuneko goiko partearekin talka egitean atera duen hotsak berdin-berdin gogaitu nau. Pijamaren galtzak orkatiletaraino jaitsi, kuleroak bajatu, eta komunean eseri naiz, begi bat erdi irekia dudala. Pixa egin dut, goizeroko erreka. Papera hartu dut garbitzeko. Garbitu naiz, eta, bat-batean golpetik ireki zaizkit bi begiak, bi kanika handi nola: odolez zikindu dut papera, nire bizian lehen aldiz. Hau izango al da hilekoa esaten dioten hori? Zenbat galdera eta beldur derrepentean... Esnatu naiz.*

Ezin dugu jakin hilekoa noiz etorriko zaigun lehen aldiz, eta garrantzitsua da horri buruzko informazioa izatea. Horrek ez du esan nahi momentua ailegatzeko denerako prestatuagoak egongo garenik; azken finean, pertsona bakoitzak modu batean edo bestean bizitzen duelako aldi hori. Baina lagungarria izan daiteke geure burua eta gorputza hobeto ezagutzen hasteko, eta aurrerago izan ditzakegun zalantzak, beldurrak, emozioak... lantzeko.

Lehen hilekoari menarkia esaten zaio, eta 10-16 urte artean gerta daiteke. Beraz, ezin dugu jakin hilekoa noiz etorriko zaigun zehazki, baina, gutxi gorabehera, titiak garatzen hasten direnetik urte eta erdi edo bi urtera etortzen da. Hala ere, datu orokor bat da. Zer esan nahi du horrek? Ba, pertsonaren araberakoa dela; beraz, ez kezkatu. 17-18 urterekin oraindik ez baduzu menarkia izan, medikua-renera edo ginekologoarenera joatea gomendatzen da, arazoren bat dagoen jakiteko eta tratatzeko. Bestela ere, ez duzu zertan joan behar, beti ere min handirik ez baduzu; baina informazioa eskatu nahi baduzu, aurrera. Jo ginekologoarenera edo menstruazio hezitzaileengana zure zalantzak argitzeko.

Askotan entzun izan dugu hileko batetik bestera 28 egun igarotzen direla, eta, bestela, hilekoa "irregularra" dela. Ahaztu horretaz: ziklo batetik bestera 21-45 egun igaro daitezke



nerabezaroan. Kasu honetan ere, pertsona bakoitzak bere zikloa du. Hala ere, lehen hilekoak "irregularragoak" izanen dira, eta ez dugu ziklo guztietan obulatuko. Gure gorputza aldaketara ohitzen ari denez, baliteke hila-bete guztietan hilekoa ez izatea. 2 eta 7 egun arteko iraupena izan dezake hileko bakoitzak. Hileko batetik bestera zenbat egun igaro diren jakiteko, hilekoaren lehen egunetik hasi behar da zenbatzen, hau da, lehen isurketatik hurrengo hileko lehen isurketara arte zenbat egun igaro diren.

Bizi osoan izaten da hilekoa? Ba,

ez. 40 bat urtez, batez beste, gurekin egonen den prozesu bat da hilekoa. Gure gorputzak hainbat etapa ditu: haurtzarora, pubertarora, helduarora eta zahartzarora. Etapa horietan gure gorputza aldatuz joanen da. Menopausia esaten zaio hilekoa izateari uzten diogun momentuari, eta, orokorrean, 45 urte bete ondoren gertatzen da. Batzuetan, baina, lehenago irits daiteke. Menopausian gure obarioek bi hormona produzitzeari utziko diote: estrogenoa eta progesterona.

Eta zer erabili dezakegu hilekoa dugunean? Iragarkietan tanpoiak eta



konpresak ikusi ohi dira, eta horiek izango dira, segur aski, ezagunenak; baina hamaika aukera daude! Betiko tanpoi eta konpresak egiteko erabili diren materialak zakarregiak izan daitezke gure osasunarentzat: alergiak eragin ditzakete, hilekoaren mina areagotu... Horregatik, higienikoagoak eta osasuntsuagoak diren beste batzuk probatzera animatu nahi zaitut.

Gainera, betiko tanpoiek gure baginan dagoen edozer xurgatzen dutenez, alergiak eragin ditzake edo, lehen esan bezala, hilekoaren mina areagotu. Beraz, alternatibak bilatzea ideia ona izan daiteke horiek ekiditeko. Tanpoiekin bezalaxe, koparekin kirola, igeriketa, yoga... nahi duzuna egin dezakezu! Hori gutxi ez, eta hamar orduz izan dezakezu barruan. Kuxkuxeatzen baduzu, ikusiko duzu hainbat tamaina daudela. Horiek adinaren arabera neurriak dira: nerabeentzako kopak txikiagoak dira.

## HIGIENIKOAGOAK ETA OSASUNTSUAGOAK DIREN ALTERNATIBAK

- Behin erabiltzeko betiko konpresak erabili ordez, zer iruditzen zaizu oihalez eginiko konpresak erabiltzea? Guk garbitu beharko ditugu, bai, baina bost minutuko kontua da. Eta diseinu ikaragarri politak dituzte!
- Edo... menstruazio kuleroak! Kulero normalak ematen dute, baina odola xurgatzeko ahalmena dutenez, hilekoarekin erabil ditzakegu. Eta ez, lasai, ez dute pixoihal efekturik egiten.
- Ohiko tanpoiak erabili ordez, hileko kopa erabili dezakegu. Tanpoiak jartzen ikasi behar den bezala (edo ikasi dugun bezala), kopa jartzen ere ikasi beharko dugu. Baina kopari esker zenbat odol botatzen dugun kalkulatu dezakegu, gure odolaren kolorea ikusi... Abantaila handiak ditu!

## GAKOAK:

- **Zer adinetan hasten da:** 10-16 urterekin. Titiak gartzzen hasi eta urte eta erdi edo bi urtera.
- **Zenbat irauten du:** 2-7 egun.
- **Zenbat egun igarotzen dira batetik bestera:** 28-35 egun.
- **Zer adin arte izaten da:** 45 urte bete ondoren arte.
- **Zer erabil dezakegu:** oihalezko konpresak, menstruazio kuleroak, hileko kopa...

**Lagunasesoria S.L.**  
**Fiskala**  
**Laborala**  
**Kontabilitatea**  
**Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)


**SOTIL GARAJEA**  
**BETELU**  
 948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)

**TAXILON**  
 661 202 249  
 (9 plaza)  
 E-posta: [lotamendi5@gmail.com](mailto:lotamendi5@gmail.com)  
 Atallu - Araitz



### ▶ SAGARDOAREN EKOIZPENA EZAGUTZEKO AUKERA IZANEN DA MARTITXONEAN

Mintzakide programaren barruan, urtero AEK eskualdegiko kideek Euskara Zerbitzuarekin batera hainbat jardura antolatu ohi dituzte eta oraingoan, sagardoa nola egiten den ikasteko aukera eskainiko dute. Datorren apirilaren 9an, arratsaldeko 18:00etan, Aldazko Martitxonea Sagardotegian, sagardoa egiteko jarraitzen duten prozesua azaltzeko jardura bat antolatu dute. Animatu eta eman izena 678 39 25 38 mugikor zenbakiaren bitartez.



### ▶ "NON DAGO MIKEL?" DOKUMENTALA ESKAINIKO DA APIRILAREN 9AN ARRIBEN

"Non dago Mikel?" dokumentala eskainiko da apirilaren 9an Araizko udaletxeko liburutegian. Amaia Merinok eta Miguel Angel Llamasek idatzitako eta zuzendutako ikus-entzunezko lana 2020ko Donostiako Zinemaldian estreinatu zen, hain justu Mikel Zabala heriotzatik 25 urte igaro berrian. Proiektzioa eta aurkezpena arratsaldeko 19:00etan izanen da.

### ▶ AMAZABALGO JANTOKI ZERBITZUAREN ETA GARRAIO PUBLIKOAREN ALDE

Amazabal Institutuko gurasoek eta eskualdeko udal ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten joan den hilean Leitzan. DBHko ikasleen jangela zerbitzua mantendu eta garraio publikoa jartzeko eskatu zioten Nafarroako Gobernuari. Orduz gero bateratuta ere, ez dutela ikasle guztiak etxera garraiatuak izanen direnaren bermerik.





### HAINBAT HOBEKUNTZA LAN EGIN DIRA AZKEN ASTEETAN LEKUNBERRIN

Kaleetako eserlekuak eta hesiak konpondu, zuhaitzak kimatu, frontoian erremontean segurtasunez jokatzeko sare berria jarri... Hainbat mantentze lan egin ditu azken asteetan Lekunberriko Udalak. Gainera, 13. sektoreko zoladura berritzeko obren esleipena ere egin da. Bizilagunen eskariei erantzunez, herriko hilerriaren atzean dagoen eremuak, maiatzerako zoladura berria izanen duela aurreikusten da.



### ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ETA AUTOKONTSUMOA HIZPIDE

Larraungo Udalak sortu eta gero "Ura eta Lurra" herri ekimena bihurtu da jada. 2020n egin ziren sei jarduerak izandako arrera ona ikusi eta gero, herritarren eskutan utzi du Udalak programa. Baina aurrerantzean ere, garapen eredu ezberdin baten aldeko ekimen honek, Udalaren babes ekonomiko izaten jarraituko du. Joan den hilaren 20an, *Goiener* Kooperatibako kideek energia berriztagarrien aldeko proposamena eta autokontsumoak eskaintzen dituen abantailak azaldu zituzten Ibarberri ikastetxean eskaini zen hitzaldian. Apirilean egitarau zabalak eskainiko dute programaren baitan (Egitarau osoa Agendan).

### LEKUNBERRIKO HISTORIA ETA BITXIKERIEZ BETETAKO QR KODEAK

Lekunberriko Udalak herriko hamar eraikin edota gune baino gehiagotan QR kodeak jarri ditu. Gune horien atzean dagoen historia zein bitxikeriak ezagutzeko aukera eskainiko dute, euskaraz, espainolez nahiz ingelesez. Herritarrei bertatik bertara dutena are gehiago ezagutu eta baloratzeko balioko dute eta kanpotik datozen bisitariarentzat berriz, herria ezagutzeko aukera ezin hobea izanen da.



# Erreak

Mendi  
magala

urrutian  
sugarra

ke artetik  
oihua

askatasun eske  
marrua.

Zigorraren lekuko  
malkoa

orainaren  
sustraia

arimenak  
errautsak

lurrean  
diraute.

Lapikoetan  
ametsak

irakiten  
daude

behin  
izan ziren

garenaren  
ispilu,

behin  
izango gara

orainaren  
istripu.

Jaio ginen  
bai

behin  
berriz

askatasun  
urrian

justizia  
egarriz.

Zapaldu gintuzten  
bai

behin  
berriz

sorginkeri  
bitxiak

adorea  
ekarriz

gizonak  
beldurtuta

ipuinak  
asmatuta

gezurak  
kontatuaz

zigorrak  
sortuaz

begiak  
estaliaz

egia  
urratuaz.

Hegazti askeak  
lotuaz

txoriek  
zerua maite

sokak estu  
hartu

gogor  
tira

azala  
urratu

izatea  
ukatu

bizitza  
galdu

izan  
zirenengatik

garena  
aldarrikatu

izango  
direnentzat

lokarriak  
askatu.



cuze

Leire Aranburu



# Nire burua zaintzen

Gaztetan unibertsitatean jaso nuen prestakuntza zientifikoa eta urtetan izan nintzen bertan ikertzaile eta irakasle. Nire ustetan, zientzia zen jakintzaren iturri bakarra. Zientzialariek frogatzen ez zutena, ez zen egia. Urteen poderioz, asko urrundu naiz pentsatzeko modu hartatik eta, egun, badakit zein distorsio handia zegoen pentsatzeko modu infantil horretan. Garai hartan, zerbait benetan horrela dela sinesteko, froga zientifikoa eskatzen nuen. Horren arabera, bazeuden froga zientifiko gutxi erakusten zituzten arloak, Psikologiak, besteak beste. Hortaz, ez nituen aintzat hartzen psikologoek ezagutza eta lanabesak, letretako arlo bat bailitzan. Baina, poliki-poliki, eta bizitzan zehar hainbat muturreko hartuta, psikoterapeuta baten-gana hurbiltzeko beharra izan nuen. Krisi sakona ari nintzen bizitzen, nik neuk sortutako egoera batean itota sentitzen nintzen. Hor ulertu nuen kanpora begiratzeko eta niri gertatzen zitzaidanaren "errua" kanpoan zegoela pentsatzeko ez ninduela nire sufrimendutik aterako. Ez zen erraza izan eraldaketa hura eta, egun, prozesu honetan segitzen dut.

Orduan ikusi nuen zein beharrezko nuen neure burua ezagutzea eta lantzea. Ondoren, urteak eman ditut, eta segitzen dut, terapia eta era desberdinetako lanketetan nire zauriak osatu asmoz. Hasieran paziente bezala eta ondoren, besteei laguntzeko lanean. Azken honetarako, Familia Konstelazioen formakuntza, Gestalt terapian prestakuntza, Bioenergetikan espezializazioa eta



abar egin izan ditut hainbat urtetan zehar.

Orain argi ikusten dut nire burua nire arduraren dela eta ezin diodala inori utzi arduraren hori. Esaterako, gaixorik sentitzen banaiz, medikuarengana joaten naiz edo krisi batean bana- go psikoterapeutarengana. Baina, haiengana laguntza bila noa soilik. Haiei ez diet ematen nire buruaren gaineko boterea. Aholkuak eman- go dizkirate, laguntza, baina nik hartzen ditut erabakiak eta horretarako, ez dut soilik burua erabiltzen arrazoitzeko, gorputzak sentitzen duena eta intuizioak esaten didana ere kontuan hartzen ditut. Nire bizitza kontzientziarekin bizi dut lehen baino askoz gehiago, oraindik ez guztiz, bidean bainago.

Atzera begiratzen dut eta gaztetako Koldo zientzia-zale itsu hura ikusten dut maitasunez. Heldutasun falta handia nuen orduan eta ardurak kanpoan jartzen nituen, besteek nire erabakiak har zitzaten. Hala ere, konturatzen naiz, garai hartan ere, hasia nintzela nire buruaren arduraren batzuk hartzen. Arrazoi ekologistak hasieran, eta osasuna zaintzeko ondoren, gaztetatik begetariano egin nintzen. Elikatzeko moduan aldaketak sartzea izan zen nire burua ezagutzeko, aldatzeko eta sufrimendutik ateratzen hasteko bidea. Jaten duguna eta nola elikatzen garen, alegia ohiturak, lotuta daude geure osasun fisiko, psikologiko eta emozionalarekin, neurri batean. Nik denari buruz ezin dut jakin, horregatik, nirekin nutrizionista bat hasi da lanean, Monika. Berak ere bide luzea du eginga eta geure buruak, bai fisikoki, bai psikikoki, hobeto zaindu eta elikatzeko etorri da Gaintzara bere laguntza eskaintzera. Zein elikagai komeni zaizkigun, nola pres- tatu, nola garbitu geure gorputzen barrualdea eta beste asko ikas ditza- kegu eta geure buruak indartu zein sendabidean jarri. Azken batean, emozio asko geure sabela aldean sortzen ditugu. Hor sor daitezke egonezina eta krisi psikologiko asko eta gure elikatzeko moduan kontzientzia jarrita, sendabidea hartu. Ni neu ere, orain ikusten dut, horrela hasi nintzen duela urte asko nire buruaren arduraren hartzeko bidean.



# Ondarearen tempoa geldi ez dadin

*Azkarate Euskal Barrokensemble taldearen kabi bihurtu da: Enrike Solinis eta Miren Zeberio taldeko zuzendariak bertan bizi dira egun, eta entseguak eta sorkuntza lanak ere bertan egiten dituzte. Asmoa da herrian bertan entsegu irekiak eskaintzea, ingurukoek nahiz interesa dutenek ezagutzeko aukera izan dezaten. Ikerketatik abiatuta, euskal ondarea eta antzinako musika dituzte ardatz.*

18



Musikari zor zaizkio historiari eta iraganari buruz jakinak diren kontu asko. Musikak gorde izan baititu garaian garaiko tradizio, ezaguera eta ibilerak, eta idatzizko transmisioari esker lotu daitezke iragana, oraina eta etorkizuna. Ikasketak musikari lotuta, jakin min handi batek bultzatuta eta lotura horren haria ezagutzeko nahiaz sortu zuen Enrike Solinis Azpiazu bilbotarrak *Euskal Barrokensemble* taldea, 2006. urtean. Antzinako musika ardatz duen talde bat da, euskal kulturaren ondarea berreskuratu nahi duena, eta Euskal Herrian nahiz nazioartean ezagutarazi. Haren bikotekide den Miren Zeberio Etxetxipia tolosarra, musikaria ere bai, geroago batu zen proiektura, eta geroztik etengabe loratu da *Euskal Barrokensemble*; biek zuzentzen dute taldea gaur egun. Zeberio biolin jotzailea da, eta Solinisek, berriz, gitarra eta baxu jarraitua jotzen ditu.

Orain dela zazpi hilabetetik, Azkaraten bizi dira, eta, musika euren egunerokoaren parte den heinean, herri horretan bertan egiten dituzte entseguak eta sorkuntza lanak. Solinisen eta Zeberioz gain, gainera, beste ospe handiko musikari batzuek ere osatzen dute taldea, eta Azkarate horien guztien topagune bilakatu da; besteak beste, Mixel eta Mika Etxekopar, Leturia, Leire Basaluzea, Pablo Martin Caminero eta Ziya Tabassian dira horietako batzuk. Solinisen eta Zeberioaren asmoa da inguruko herritarrei eta interesa duen pertsona orori euren musika ezagutzeko

aukera eskaintzea, eta, horregatik, pentsatu dute entsegu irekiak antolatzea Azkaraten bertan. Irailean ere egin zuten halako emanaldiren bat. Pandemia dela eta, aurrerago egingo dituztela baieztatu dute.

Antzinako musikan espezializatuak dira taldeko bi zuzendariak. Azaldu dutenez, musika klasikoaren barruan badu bere tokia musika mota horrek, baina ez dira gauza bera. Halaber, nabarmendu dute Euskal Herrian ez dagoela euskal ondare "modu txukun" batean ikertzeko eta lantzeko aukerarik; hori dela eta, biek Euskal Herritik kanpo ikasi behar izan dute. *"Gure ondarerik inportanteena tradiziozko musika, literatura eta horiekin lotutako adarrak dira, eta, izatez, badira horiek ikertzeko hainbat metodologia. Metodologia horien birtartez ondare horiek berregin eta birsortu daitezke"*. Solinisek Bartzelonako kontserbatorioan ikasi behar izan zuen, eta Zeberio ere Bartzelonan eta Holandan aritu da ikasten, besteak beste. Uste dute kontserbatorioetan ikasi beharko litzatekeela hori, baina, tamalez, lehengo metodologiek segitzen dutela: *"Partitura bat jotzen ikasten duzu, ez dakizu inprobisatzen.. Euskal Herrian gure ondarea galtzen ari gara. Horrela, ondare hori berreskuratzeko aukera izango genuke. Oxala jende gehiago saiatuko balitz"*.

### Dokumentazioa oinarri

Izan ere, dokumentazio eta ikerketa lan sakona egiten dute proiektu bat



Ikuskizunetan musika, dantza eta kontakizunak uztartzen dituzte. Arg: Euskal Barrokensemble.


sortzen hasi baino lehen. Inportantzia handia ematen diote lanaren zentzuari, historia kontatzeari eta kontaketaaren moduari: *"Jende asko aritzen da antzinako musikaren bueltan, baina gure esparrua desberdina da, batik bat, erabiltzen ditugun instrumentuengatik. Gurea esan genezake interpretazio historikoa dela, ikerketa, bilatzen saiatzea... Zer egin dezakegun pentsatzen dugu, zer istorio kontatzea, zer dagoen horren atzean. Instrumentuen kolorea ere pixka bat desberdina da gainerakoekin konparatuta, oso antzinakoak baitira"*, azaldu du Zeberio.

Oso antzinakoak, baina euskal kulturaren aspalditik oso presente egon diren instrumentuak direla adierazi dute, erromerietan eta beste hainbat ekitalditan, esaterako. Trikitiarekin egin dute alderaketa: *"Trikitia bai, noski, euskal instrumentu bat da, baina orain dela 120 urte bakarrik iri-*

*tsi zen Euskal Herrira. Biolina, adibidez, lehen erromeria guztietan jotzen zen"*, esan du Solinisek. Zeberioek garaian garaiko behar eta egoeretan jarri du fokua: *"Azken finean, garai bakoitzak bere beharrak ditu. Trikitia oso praktikoa da, soinu handia ateratzen du, sonoritate aldetik, eta, segur aski, aurretik erabiltzen ziren beste hainbat instrumentu ordezkatzeko zituen"*.

### Ondarearen truketzea

Hartu eta eman, eman eta hartu: hamaika ordezkapen gertatuko ziren Euskal Herriko historian.. Folklorearen truketze hori aberasgarritzat jo dute Euskal Barrokensembleko bi zuzendariak: *"Askotan aldarrikatzen duguna da euskaldunak kanpora joan izan direla, kanpoan beste batzuekin nahastu, eta beste kantu batzuk ekarri izan dituztela, modernizatuta, nola bait. Hor ikusten da gure folklorea ha-*



Elkano proiektua da taldearen azkenetako bat.  
Arg: Euskal Barrokensemble.

rremana izan dugula beste batzuekin". Gehitu dute Euskal Herritik kultura asko igaro direla, eta bakoitzak bere arrastoa utzi duela. "Bereziak gara, baina nahasketa asko ere baditugu, eta hori ez digute erakutsi, inork ez duela-ko horretaz hitz egiten", nabarmendu du Zeberio. Nahasketa horren beste adibide garbi bat aipatu du Solinisek: albokarena. "Alboka Arabiatik ekarritako instrumentu bat da, al-bûq izenekoa. Gure geografia eta beste alderdi batzuk nahiko bereziak direnez, hemen geratu zen, baina begira zein den jatorria: arabiarra da, eta ez euskalduna. Batzuek ez lukete sinistu ere egingo".

Haien arabera, ezinbestekoa da euskaldunek beren istorioa kontatzea eta hauspotzea: "Guk ez badugu gure istorioa kontatzen, inork ez du kontatuko, eta horregatik kontatu behar dugu,

adibidez, Elkanorena. Guk gure ikuspuntutik kontatzen dugu". Hain zuzen, irailean Elkanoren entsegu ireki bat eskaini zuten Azkaraten bertan; orain arte egin ahal izan duten bakarra izan da, baina aurrerantzean hori da haien asmoa: ingurukoei nahiz interesa dutenei eskainitako entsegu irekiak antolatzea. "Jendeak jakin dezan hemen bertan gaudela, ospe handiko musika-riak etortzen direla, eta gozatzeko aukera izango dutela".

Antzinako musikarekiko zaletasuna eta ezaguera trukatzeko segitu nahi dute, eta Azkarateko nahiz inguruko txoko guztietara ailegatu. Gaurtik aurrera, Azkarate izango da Euskal Barrokensemblen kabia, eta, taldea ez ezik, euskal ondarea ere gotortuko dute. Euskal kulturaren tempoak bestuta dago haiekin.



Nazioartean hainbat eta hainbat emanaldi egin dituzte. Arg: Euskal Barrokensemble.

## Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

German Lasarte

ARBEONDO HARATEGIA

Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

LEKUNBERRI



## Bultza euskaltegiak, bultza euskara!

Larraungo AEK euskaltegiak "Bultza euskaltegiak!-Bultza euskara!" izeneko dinamika aurkeztu zuen martxoaren azken igandean, Lekunberriko Anfiteatroan egindako ekitaldian. 50 herritar inguru elkartu ziren eta bertan parte hartu zuten besteak beste, Julio Soto bertsolariak eta Iker Uribe ilustratzaileak.

Guztion eskubideak bermatzeko, herritarren euskalduntzea beharrezkoa dela kontuan hartuz, ezinbestekoa da euskaltegi indartsuak izatea. Baina gaur egun euskaltegiek duten finantzaketa ez da aski. Horregatik "Bultza euskaltegiak!" dinamikarekin, Euskal Herriko administrazio nagusiei, datozen urteetan euskalduntze-mugimenduak izan behar dituen baldintzak jasotzen dituen gutuna bidaliko zaie. Bestalde, eragile eta herritarren bultzada ere bilatzeko asmoz gurean egin zen moduko ekitaldiak egin ziren joan den hilean Euskal Herri osoan.

KORRIKAREN atzeratzeak aurrekontuan zuloa eragin du eta banku bizidako finantzaketaren bitartez eman zaio erantzuna. Zorpetze horri ere aurre egiteko ezinbestekoa izanen da herritarren sostengua. Horregatik eta datorren urteko KORRIKAREN zain gauden bitartean, ekarpenak egin daitezke [www.aek.eus](http://www.aek.eus) atarian.

ESKUALDEA

## Bederatzi geldialdi eginen ditu Mendialdeko Azoka Ibiltariak

Iaz Mendialdeko hainbat udalek Cerdna Garalur Elkartearekin batera azoka ibiltaria jarri zuten martxan eta izan zuen arrakastaren ondotik, beste horrenbeste antolatuko dira aurten. Dagoeneko hitzorduak ere zehaztu dituzte. Datorren apirilaren 25an emanen zaio hasiera Leitzan, aurtengo denboraldiari. Egun horretan, eskualde mailan sortu den Mendialdeko baserriar agroekologikoen elkarteak aurkeztuko da.

- Apirilaren 25ean, igandean, Leitzan.
- Maiatzaren 9an, igandean, Araitzen.
- Maiatzaren 23an, igandean, Aldatzen (Larraun).
- Ekainaren 20an, igandean, Goizuetan.
- Uztailaren 4an, igandean, Latasan (Imotz).
- Uztailaren 25ean, igandean, Basaburuan.
- Abuztuaren 14an, larunbatean, Areson.
- Irailaren 18an, larunbatean, Atetzen.
- Azaroaren 7an, igandean, Lekunberri.

**Hostal Betelu**

Eguneko menua,  
karta, plater  
konbinatuak eta pizza  
goxoak

Etorri eta  
on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU bar**

ETXKO PIZZAK,  
KOPA BERGZIAK

948504352

**ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*

hamabostaldi  
eskaintza bereziak



**CONSTRUCCIONES**

**ERAIKUNTZAK**

**CONSTRUCCIONES**  
URANGA/SAIGÓS. S.L.

**TEILATUAK**

**FATXADAK**

**ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA**

**665 708 683**

Lekunberri

## LEKUNBERRI



## Lekunberriko I. Liburu Azoka

Lekunberriko frontoiko plazan, joan den martxoaren 7an, Lekunberriko I. Liburu Azoka izan zen. Iker Uribe Autoedizioak eta Abarzuza, Elkar, Iratxe eta El Bibliófilo liburu-dendek parte hartu zuten. Euren jarritako postuetan kaleratu diren azken idatzizko lanak eskuratzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek, baita bigarren eskuko liburuak erosteko ere.

22

## LEKUNBERRI



## Netflixek fikziozko telesail bat grabatu-ko du Lekunberrin eta inguruan

'*Tú no eres especial*' izena du Netflixek gurean grabatuko duen fikziozko telesailak. Dagoeneko aktoreak eta figuranteak hautatzeko castingak egin eta espazio aproposenak aukeratzeko hasi dira ekoizleak. Bartzelonatik Salavarría izena duen fikziozko herrira bizitzera datorren 16 urteko neska gazte baten istorioa kontatuko du. Bere amaren herria den horretan, bere arbasoen historian arakatzeko hasiko da eta mitoekin, tradizioekin eta sorgin kontuekin egingen du topo.

## LEKUNBERRI

Zilarrezko eta Urrezko dominak Andrea Albeniz eta Aroa Etxarrirrentzat



Joan den otsailaren 27an eta 28an Andoaingo 16. Piano Jaialdia izan zen eta urtero bezala, bertan parte hartu zuten Aralar Musika Eskolako ikasleek. Lekunberriko Andrea Albenizek eta Aroa Etxarrik zenbait urtetako esperientzia dute jada eta aurtengo zilarrezko eta urrezko dominekin bueltatu ziren etxera. Zorionak bikote!




## Itoiz musika taldearen irudirik ba al duzu?

Doxa Producciones ekoiztetxea Itoiz musika taldeari buruzko ikus-entzunezkoa prestatzen ari da eta material bilketa egiten dabil Euskal Herria osoan zehar. Herritarrek izan ditzaketen argazkiak, artikulua, bideoak nahiz soinu grabazioak bildu nahi ditu. *“Taldea 1976an hasi eta 1988an desagin zen, baina aurretik, Indar Trabes izenarekin ibili ziren jotzen. Gure informazioen arabera, badakigu Intzan jo zutela nahiz eta ez dakigun zehazki zein urtetan. Beraz, baliteke sasoi hartako materiala izen bi horiekin gorde izana. Oraindik argitara atera ez den material hori lortzea da interesatzen zaiguna, profesionala edo afizionatua, kalitatezkoa edo etxekoa”.*

1983an Leitzan ere jo omen zuten. Gogoan al dituzu emanaldi haiek? Materialik baduzu? Jarri harremanetan [archivo@doxaproducciones.com](mailto:archivo@doxaproducciones.com) e-postaren bitartez.

## ARAITZ-BETELU

## “Araxesen gainetik, Malloen azpitik” dokumentala estreinatuko da maiatzaren 7an, Arriben



Araitz eta Beteluko udalek Labrit Multi-demiarekin batera ekoiztutako ikus-entzunezkoa, 2010ean bailaran egindako ondare immaterialaren bilketa lanean dago oinarrituta. *‘Araxesen gainetik, Malloen azpitik’* dokumentalak, Inkisizio garaian gure arbasoek jasandako gehiegikeriak jasotzen ditu, baita euren utzitako ospakizun, lanbide, ohi-tura eta sinismen asko eta asko ere.

Maiatzaren 7an estreinatuko da, Araizko udaletxeko liburutegian. Lehen pasea arratsaldeko 19:00etan izanen da parte-hartzaileentzako eta bigarrena 20:30ean, herritar guztientzat. Eman izena aurrez: 948 513 087 - 674 366 920 / [udala@araitz.eus](mailto:udala@araitz.eus)

## “Dardara” filma estreinatu du Berri Txarrak taldeak



Joan den hilean *‘Dardara’* filma estreinatu zen Ikuspuntu Jaialdiaren XV. edizioan. Berri Txarrak taldeak 2019an egin zuen azken birarekin batera ekoiztutako ikus-entzunezkoa da. Marina Lameiro Iruindarrak zuzendutako lanarekin, Berriko taldekideek, eurekin batera egindako 25 urteko ibilbidea eskertu nahi izan diete zaleei. Azken bira berezi hori ikus-entzunezko batean jasotzetik haratago, taldeak mundu osoan dituen zaleen bizipenak eta emozioak jasotzen ditu, geldialdi mugagabea egiteko erabakiaren atzean egindako hausnarketak, teloiaren atzean sentitutakoak, kontzertuen aurretik eta ondoren izaten diren betebeharrak... Hori eta askoz gehiago jasotzen du *‘Dardara’* filmak. Dagoeneko, Euskal Herriko zenbait zinema aretotan dago ikusgai.

# Emakumezkoon harresiak denon harresi direlako...

24

*Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan hainbat ekitaldi izan ziren martxoan zehar gurean. Larraungo Berdintasun Mahaiak bertako eragile ezberdinekin elkarlanean egitarau zabala prestatu zuen. Besteak beste, martxoaren 5ean Rocio Ochoak lanaren eta familiararen arteko kontziliazioari buruzko hitzaldia izan genuen. Vero Satrustegiren eskutik, hilerokoaren zikloari buruzko ezagutza zabaltzeko aukera izan zuten Allin elkartu ziren gazteek. Eta Kantinan berriz, feminismoaz eta dibertsitateaz aritu ziren, bertan antolatutako Gintonadan. Baina ekitaldi nagusia, martxoaren 7koa izan zen, Larraungo udaletxe aurrean elkarretaratzea egin baitzen emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun eskubidea aldarrikatuz. Egun horretan, Araitzen eta Betelun ere, hainbat herritar elkartu ziren. Zapiekin giza-kate polit bat osatuz Atalluraino joan ziren oinez. Arriben, hainbat kidek performance bat eskaini zuten eta zapi handi batean zintzilikatu zituzten zapi guztiak. Harreman osasuntsu, parekide eta askeen eta bailara feminista eta antiarrazista baten aldeko irakurketarekin bat egin zuten.*







# Hitz aspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Uso

*“Azkar eta ongi, usoak hegan” da esanea. Ta pentsatzen jarrita, berezkoa ote due usoak abildade hoi, eo beharran porioan garatu duen zeoze ote da. Plazer hutsez itte ote due horren dotore hegan o atzetik heldu zaien harrapari hortatik ihesi. Haundiek ttikie jatea omen, naturan legea. Azkarrak izango dee, baño halai eroitzen dee usoak re sarean. Atzetik helduan balizko harrapakari horren zelatan, ihesi diezte ta parez pare o sahitsetatik jotzen die tiro heriok.*

*Usoak beak baño hobeki eztakit, metalezko miren atzean daun horren pultsuen arabera, baño usoak beak baño azkarrau heldu zaie ziztakoa. Ta beak baño dezente ttikigoa den harrapakari batek josie gañea. Bala ttikieten ziztakoa, danbakoa. Uso botatzeo berdezko harrapariak re metalezko mire baztarrea zenbat lumadun eroi deen ikusteko! Haizea zulatuz ibili deen haik beti zerbatten mire! Botatakoak, berriz, lau, bertaatu ta ... holakotan gehintsunean, hamalau!*

*“Azkar eta ongi, usoak hegan”... ta zein krixtok itteo gaizki hegan. Zeñek txoriek baño ariño dantzan! Lumajea kolorea, eztarrin karraskaik bareko kantue ta hegaldie bea dee urte sasoi hontan puri-purin dauzkuen armak. Itxi begik eta ikusi bestela saarri eunsentitako giroa. Uso ohartuko zeate kalendarioai beittu bare udaberrie hemen dela.*

*Akau isiltasunen amorratuk deen mozorroan lozorroak; bukatu da gauetik euneako instant ixill ta magiko hortako pakea. Ta pakea esan duula, uso zurie re ez al da ba pakean sinboloa. Eztakit ba ikur hori re ez ote den idiliko antxa, aurreko eunsenti hoik bezalaxe...*

*Nola litteke pakean ikur izatea arratoi hegalari gixen re ezautzen deen hegazti deformeak. Deformeak, bai! Uso atzeatuko zo atzaparra obi mamik botatzen hasi eta azkazala azkazalan gañean, hanka erdie faltan eo ezkerreko hegalan gañean kallo moreat ikusten diozonean ditxosozko pakean uso zuriei. Hegan ze azkar ta ze ongi, baño hiritako balkonetan, baserritako tellepetan o kale eta parketako banku azpitan pakeik ematen ez duenean, uso kentzen dee paretik!! Pakea re ez baita horren ear, horren arin. Zurie baita pakea eskaintzen dizon eskuen irriparra re.*

*Usoa ta pakea, karakola ta barea!*



## Araxes Herri Kirol Kluba Nafarroako lehen postuetan

Araxes Herri Kirol Klubeko bi taldek parte hartu dute aurten Nafarroako Kirol Jokoetan. Kimuen eta Haurren mailan aritu ziren eta finalera iristea lortu eta gero, txapelduorde gelditu dira. Martxoaren azken asteburuan, Antsoainen jokatu zen finala. Kimuen kasuan, Igantzi taldearekin batera bukatu zuten lana, baina epailearen kronometroak 0,1 segunduko aldea ateratu zuten bien artean eta azkenean, bigarren postua eskuratu zuten. Haurren mailan berriz, saio txukuna egin zuten eta sokatiran talde bati irabaztea lortu zuten. Aurten saio guztiak ikuslerik gabe egin diren arren, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren YouTube kanalean daude ikusgai.

## Larraungo neskek indartsu palan



Nesken Pala-gomako partidak ere jokatu ziren Nafarroako Kirol Jokoen Txapelketaren barruan. Larraungo Pilota Elkarteko neskek ezin hobeto aritu ziren binaka. Gazteen mailan, Maddi Galarzak eta Maria Eguzkizak, Saioa Berekoetxearen eta Mendillorriko Arbizuren kontra irabazi zuten. Irati Garziarena eta Olaia Iriarte Kadeteetan txapeldu izan ziren. Eta txapela jantzi zuten ere kimuen kategoriako lehen mailan, Naia Galarzak eta Lorea Navascuesek. Bigarren mailan ere ederki aritu ziren Izarne Larreta eta Haizea Etxarri.

## Ibai Soroa eta Txomin Amundarain txapeldu Urrezko Aizkolari Txapelketan



Martxoaren 14an, Azpeitian jokatu zen Urrezko Aizkolarien Txapelketaren XXI. edizioan parte hartu zuten Arribeko Ibai Soroak eta Txomin Amundarainek. Binakako txapelketan, Hodei Ezpeleta-Goizeder Beltzaren eta Suharri Rodriguez-Jokin Urretabizkaiaren aurka aritu ziren. Hemezortzi minutu eta berrogei segundotan amaitu zuten lana, lehen bikoteari minutu bat eta hogeita bost segundoko aldea ateraz eta bigarren bikoteari bi minutu eta hamar segundoko aldea ateraz. Egun horretan bertan, hirugarren arribetar bat ere aritu zen enborrak mozten. Xuban Kañamaresek Ibon Garaibururekin batera osatutako bikoteak Aizkolari Gazteen mailako txapela irabazi zuten Markel Zapirain-Axel Larrañak eta Oier Larretxea-Endika Goiak osatutako bikoteen aurka. Zorionak!!

# Albiasun, ez dira herria hustuko denaren beldur

## Albiasu herri txikia izanik ere, beti izaten da zer egin Kontzejuan, ezta?

Bai. 2015ean, elizako teilatua berri-berria tokatu zitzaigun. Eraikina Artzapezpikutzaren izenean dago, herritarrok erabili arren, eta teilatua berritzeko, Elizarekin hitzarmen txiki bat sinatu genuen. Larraungo Udalararen aldetik 10.000 euroko diru-laguntza jaso genuen inbertsioetarako eta teilatua berritzeko erabili genuen. Horrez gain, Elizak 7.000 euro jarri zituen eta Kontzejuak 5.000.

## Zenbatero izaten duzue meza orain?

Normalean hilabeteko azken igandean izaten da. Albiasun betidanik harreman handia izan da Elizarekin. Don Jesus Jaimerenaekin denak ezagunak ginen eskolatik hasita eta bera ere oso gustura etortzen zen. Hura bizi izan zen artean igandero izaten genuen meza hemen. Baina orain apezek herri asko dituzte eta ezinezkoa da. Baina, festetan San Miguel Egunean ere izaten da eta San Lorenzo egunean ere, hori dugu herriko patroia. Frontoiaren ondoan daukagu eliza eta uste dugu merezi duela ongi mantentzea. Edonork baitaio edo ezkontzaren bat ospatu nahi

badu ongi egon dadila. Gainera utziz gero arriskutsua izan liteke.

*“Errazkin eta Betelurekin beti egon da harremana”*

## Bideak ere berritu dituzue...

Bai. Baraibar aldeko bide batzuk ere berritu genituen, bai. Eta Tokiko Administrazio Departamentutik 20.000 euroko diru-laguntza jaso genuenean zertan inbertitu pentsatzen ibili ginen. Albiasun kontzeju-etxea falta zitzaigun, elkartzeko lokal bat. Eta eraikin hau eraikitzeke aprobetxatu genuen.

## Orain arte non egiten zenituzten bilerak?

Ostatua izan zen etxean, Rosaren etxean, baina familiaren borondate onari esker. Ni umea nintzenean alkatearen etxean edo ostatuan egiten ziren bilerak. Ostatua 71. urte inguruan erre egin zen eta urte askoan egon zen hutsik. Ondoren, familia batek erosi eta berritu egin zuen eta ostatuko zerbitzua ematen hasi zen berriro. Gutxieneko zerbitzua izaten

zen, jaiegunetan, mezaren ondotik zerbait hartzeko edo meriendak egiteko etab. Baina azkeneko urtetan beharra sumatzen genuen, halako lokal baten beharra. Edozein bilera edo hitzaldi eskaintzeko ongi dago.

## Hemen aurretik ez zegoen inolako eraikinik, ezta?

Ez, hau barruti bat zen, baina ondoko hiru etxe berri hauek egiteko urbanizatu egin zen eta momentua aprobetxatu genuen. Jasotzen dugun hurrengo diru-laguntzarekin bulego txiki bat eta komuna egiten ditugu eta altzariak ere falta zaizkigu. Baina ez dugu presarik!

## Zuek ere aurki hasiko zarete konposta egiten...

Bai, ziur aski banakako konpostagailuak jarriko ditugu. Hemen denak ditugu lurrak edo baratza, badugu konpostagailua jartzeko lekua.

## Zenbat bizilagun ditu gaur egun Albiasuk?

Orain 16 edo 18 gaude errolatuta. Bost etxetan bizi gara. Asteburuetan jende gehiago etortzen da. Aldaketa momentu batean gaudela esanen





nuke. Nire belaunaldiko gehienak Iruñera joan ziren bizitzera eta azken urtetan adineko jende asko hil da.

### **Herri hustuko denaren beldurra al daukazu?**

Hiru edo lau etxe huts dauzkagu. Etxe handiak dira berritzeko baina pixkanaka beteko dira berriro. Ni gaztea nintzenean herrian 18 gazte inguru ginen eta denok genituen lurrak etxeren bat egiteko, baina hiru bakkarrik gelditu ginen herrian. Iruñera joateko joera zegoen. Baina orain berriro herrian bizitzea estimatuta dago. Gainera, Albiasu ezin liteke alderatu Pirinioetako herri galdu batekin. Lekunberritik, Azpiroztik eta Baraibartik oso gertu dago. Herria polita da, ez du aitzakiarik!

### **Sagardotegia ere ireki zen orain dela zenbait urte...**

Bai. Orain itxita dago, baina egoera normalean, sagardo denboraldian horrek ere bizia ematen dio herriari.

### **Ondare Kultur Taldeko kideak ere izan ziren hemen lanean, ezta?**

Bai. Errazkin aldera daukagun gaztaina-eskorta eta bidea garbitu eta berreskuratu zuten.

### **Errazkindarrekin zer moduzko harremana duzue gaur egun?**

Ona. Errazkin eta Betelurekin beti egon da harremana. Lehen pike gehiago izaten ziren, bakoitza bere herrian egoten zen eta itxiagoak ginen, baina beti izan da harreman estua. Errazkingo bi emakume ezkondu ziren Albiasura aurreko belaunaldian, bata nire ama. Oinez ibiltzen ziren hara eta ona.

### **Datozen urteetara begira, zein beste asmo dituzue Kontzejuan?**

Albiasuko gaina komunala da eta bertan komunaleko azienda sartzea pentsatu dugu belarra moztuta eta ongi mantentzeko. Horretarako alantzearekin itxi nahi dugu eta pasabide kanadiar batzuk jarri. Bestalde, Egur loteak ere baditugu ateratzeko. Herrian egin diren azken obrak diru-laguntzeekin egin dira eta azken urtetan ez dugu egur loteen beharrik izan, baina aspaldiko urtetan ez dira moztu eta horiek bota eta berriro landatzeko garaia daukagu.

### **Diru-iturri ona da hori...**

Bai. 1980. urte inguruan, kaleak berritu eta hainbat lan egin ziren eta dena zurari esker ordaindu zen. Hemen haitz amerikarra eta bertakoa daukagu gehien bat.

*Manuel Mari Argañak Albiasuko Kontzejuan azken urte hauetan egindako lanen berri eman digu.*

**Txooooo!**

# **JUANLUZENEK SAGARDOTEGIA**

**MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik**



948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

# *Martitxonea*

*sagardotegia*

## *Inaxio Begiristain*



*Aldatz Nafarroa*

948604607

## JUBILOTEKAKO BIGARREN TALDEA OSATZEKO IZEN-EMATEA IREKI DA!

Jubilotekako erabiltzaileek ere bat egin zuten martxoaren 8an izan zen Emakumearen Nazioarteko Egunarekin. Egin zituzten eskulanekin emakumea omendu zuten. Gainera, Jubilotekak duen arrakasta eta eskaria ikusita, bigarren talde bat ere osatzeko deialdia egin du Lekunberriko Udalak. Bigarren taldea astelehen eta ostegunetan elkartuko da goizeko 10:00etatik 12:00etara. 65 urte baino gehiago badituzu eta interesa baduzu, eman izena Lekunberriko udaletxean (948 50 42 11 / [bulegoak@lekunberri.eus](mailto:bulegoak@lekunberri.eus)).



30

## ► MERKATU TXIKIA

### LAN BILA

► Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

### EROSTEKO

► Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

### SALTZEKO:

► Hiru logelako pisu bat salgai Betelun: 90m<sup>2</sup>, sukaldea eta egongela dena bat eginda. Garajearekin eta dena berrituta. Harremanetarako: 620 735 089 (Mikel)

**Antsoenea**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
[www.antsonea.com](http://www.antsonea.com)  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743  
[infoaralar@gmail.com](mailto:infoaralar@gmail.com)

**AGUNDU MAILA**  
**AGUNDU**

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
[mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

## ▶ AGENDA

### APIRILA

4 - Pelikula: "Perfectos desconocidos". Printzan, arratsaldeko 18:00etan.

5 - "Ura eta Lurra". Mikel Orejak gidatutako txango didaktikoa. "Uraren bidea Uitzin: nondik eta nola helzen da gure etxeetara". Irteera Uitziko plazan, goizeko 10:00etan.

9 - Aldazko Martitxonea Sagardotegian, arratsaldeko 18:00etan, "Sagardo prozesuari buruz jakin nahi?". Eman izena 678 39 25 38 mugikor zenbakiaren bitartez.

9 - "Non dago Mikel?" dokumentalaren proiektzioa eta aurkezpean Araizko udaletxeko liburutegian, arratsaldeko 19:00etan.



9 - Saharar herriaren aldeko ekimena: Hitzaldia Beñat Hach Embarek Irizarren eskutik. Lekunberriko udaletxean, 18:30ean.

10 - Saharar herriaren aldeko kontzentrazioa, Lekunberriko plazan, 12:00etan.

10 - Kontzertua: Leizeak, Printzan 18:00etan.

11 - "Ura eta Lurra". Txangoa Ondare Kultur

Taldearen eskutik: 'Larraungo bi isurbideak'. Azpirozko gainean, goizeko 10:00etan.

15 - Mimukai proiektua: Enpresa sareak eta coworking espazioaren diseinua. Leitzako Herri Aretoan, 15:00etan.

16 - "Ura eta Lurra". Eduardo Markinak eskainitako hitzaldia: 'Inertziako berogailu efiziente eta jasangarria egurrarekin'. Lekunberriko udaletxean, arratsaldeko 18:30ean.

16 - "Izan energista!" Tailerra. Nola murriztu energia kontsumoa, autosufizientzia energetikoaren bila 18:30tan Printzan.

21 - "Ura eta Lurra". Hitzaldi-solasaldia Iñaki Petxarroman eta Martxelo Otamendirekin: 'Krisi klimatiko eta

ekologikoa. Nora goaz?' Plazaolako hitzaldi aretoan, arratsaldeko 18:30ean.

24 - "MTB tailerra". Hartu konfidantza bizikletarekin eta ikasi konpontzen. 10:00etan Printzan.

25 - Ate irekiak. Proiektuaren azalpena, bisita gidatua eta auzolana. 17:00etan Printzan.

25 - "Ura eta Lurra". Txango teoriko-praktikoa Aranzadi Zientzia Elkatearen eskutik: 'Albiasu-Lekunberri korridoreko anfibio eta narrastiak ezagutzen'. Albiasu herri sarreran, goizeko 10:00etan.

27 eta 29 - "Ura eta Lurra". Fran Sanz geologoak gidatutako txango didaktikoa. 'Uraren zikloa Larraunen, ikasleei azaldua'. Irteera Ibarberri eskolan, goizeko 9:00etan.

25 - Mendialdeko Azoka Ibiltaria Leitzan.

30 - Muxutruk. Ekarri edota hartu nahi duzuna. 16:00etatik 19:30era Printzan.

### MAIATZA

7 - "Araxesen gainetik, Malloen azpitik" dokumentalaren estreinaldia Araizko udaletxean.

8 - Euskal Herriko Tontorren Igoera, Izan Bideak antolatuta. Izen-ematea: <https://650tontor.sare.eus>

9 - Mendialdeko Azoka Ibiltaria Araitzen.

#### INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO, SARTU WEBGUNEETAN



Leizeak taldea Facebooken



Non dago Mikel? Twitterren:



Sare 650 tontor



Printza Twitterren:



# Etxe bat



## bazkide bat



*Uitziko Martin J. Zabaleta eta Beteluko Ade Sotil aspalditik dira Mailopeko bazkide eta ale honetako zozketako saridunak izan dira. Errigorako saski bana jaso dute. Zorionak bioi!*

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE ETA  
ZUZENEAN BI HILABETERO EGINEN DIREN  
ZOKKETETAN PARTE HARTUKO DUZU!

## MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK:

MAILOPE@LABRIT.NET

638 652 339

[HTTPS://MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA/](https://mailope.eus/bazkidetza/)